

80 proposamen
berdintasunezko euskal
eskola publiko
integral baterako

80 PROPOSAMEN BERDINTASUNEZKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKO INTEGRAL BATERAKO

Gure autogobernuak lau hamarkada betetzen dituen bitartean, 30 urte igaro dira dagoeneko Eskola Ituna eman zenetik, bere eskutik gero Euskal Eskola Publikoaren Legea eta ikastola askoren publikazioa ekarriko zuen ituna. Hori horrela, euskal hezkuntzak bere etorkizunari buruzko eztabaida bat du aurrez aurre eta garrantzitsua da euskal hezkuntza-politikan gure lehentasunak identifikatzea eta zehaztea, gure errealitateari lotutako jarrera batetik abiatuta. Izan ere, errealitate horri ez zaizkio arrotzak euskal hezkuntza-sistema berezia eta anitza eraiki duen prozesuari lotutako eztabaidak, **publikoari/pribatuari eta itunpekoari** buruzkoak.

Gure **eskola-sistema erdibanatuta dago sare publikoaren eta pribatu-kontzertatuaren artean**, eta bikoiztasun hori ohiz kanpokoa da Estatuan eta Europan. Eskola-mapa hori, kontzertazio-politika orokor batek lagunduta (diruz lagundu gabeko sektore pribatua anekdotikoa da gurean), ikasleen jatorriaren eta klase sozialaren araberrako eskola-segregazio galantaren oinarrian dago. Politika hori desberdintasunen sortzailea da eta gizarte-kohesioa kaltetzen du, azken urteotan aurkeztutako txostenek erakusten duten bezala.

COVID19ak eragindako pandemiari aurre egitea tokatu zaio hezkuntza sistemari hainbat arazo larriekin, plantilla eskasa delako, eta oraindik ere eta parlamentuan onartua izan arren, CO2 neurgailuak ezarri ez direlako. **Erronka demografikoak** aukera baten aurrean jartzen gaitu, eta gure esku dago egoera hori aprobetxatzea ikasle/irakasle ratioa eta hezkuntza-kalitatea hobetzeko eta ikasgela publikoak ixten ez direla bermatzeko; ikastetxe askoren hiltzoriaren aurrean ezer ez egitea da beste aukera.

Bestalde, desberdintasunari eta beste arazo sozial batzuei aurre egiteko, ezin dugu erantzukizunaren pisu osoa hezkuntza-sisteman jarri. Horretarako funtsezko pieza da, baina ez bakararra. Beraz, hezkuntza arloko proposamenekin batera eta gizarte kohesionatu batera iritsi nahi badugu, **gizarte-, lan-, berdintasun- eta gazte-politikak indartzeko unea da.**

Euskal hezkuntza-sistemaren oinarriak birpentsatzeko dugun aukera honen aurrean, egoki deritzogu errepublikanismoaren ekarpena kontuan hartzea. Izan ere, ezinbestekoa da bidezko gizarte bat lortzeko, herritar kritikoak eta beren eskubideez jabetuak izatea; pertsona trebeak hezte beren bizi-proiektuak gure gizartean garatu ahal izateko. Horregatik, **hezkuntza-eredu publiko, pluralista eta kritiko baten alde jardun** behar dugu, **merkantilizatutako irakaskuntza-ereduak, norabide bakarrekoak eta lehiakorrek baztertuko dituenak**. Horrela baino ez dira heziko bizitza publikoan parte hartzeko prest dauden pertsonak. Horretarako, ezinbestekoa da hezkuntza-erakundeen eta praktika pedagogikoen demokratizazioa; ikasleak bihurtu behar dira irakaskuntzaren protagonista, ikasleen zerbitzura lan egin beharko dute hezkuntza-sistemako eragile formalek zein informalek.

Nazio Batuek onartutako **2030 Agenda**, zeinarekin Euskadik konpromisoa hartu baitu, giza eskubideak eta iraunkortasuna sustatzeko funtsezko konpromisoa eta bultzada da. Agenda honek markatzen duen **garapen iraunkorrerako 4. helburua**, hezkuntzari buruzkoa da eta honako hau proposatzen du: kalitatezko hezkuntza sustatzea, goi-mailako prestakuntza eskuratzeko berdintasuna lortzea, hezkuntzan genero-desberdintasunak gainditzea, pertsona zaurgarriek heziketa berdintasunez eskuratzea, garapen jasangarrirako hezkuntza ematea, instalazio irisgarriak eta seguruak bermatzea. Egingo den Itunak bat egin behar du, ezinbestez, 2030 Agendarekin.

Gure ustez, **hezkuntzak eztabaida zorrotza eta lasaia** behar du, azken urteotan gertatzen ari dena, baina azken hilabeteetan arindu egin dena, beharrezko diren **entzutea, parte-hartzea eta eztabaida** egitea galeraziz, eta ez soilik indar politikoen artekoa, baizik eta, batez ere, inplikaturako eragileen artekoa. Era berean, uste dugu itun bat prozesu bat dela, berez helburu bat baino gehiago, batez ere hezkuntzaz ari bagara. Prozesu horrek argitasunetik, gardentasunetik eta zintzotasunetik abiatu behar du, inplikaturako eragile guztien benetako parte-hartzearekin. **Prozesuaren emaitzak behar du izan konpromisoak bereganatzen dituen dokumentu programatikoa, epeak jartzen dituen, elementu ebaluagarriak dituen eta aurrekontu ebaluaketa duena.**

Hori dela eta, hezkuntza-eztabaida proposamen zehatzekin moldatzea komeni da, akordioak lortzeko dauden aukerak ikusteko eta ezberdintasunak eta alternatibak herritarren aurrean kontrastatzeko. Elkarrekin Podemos-IUK akordiorako borondate handienarekin ekingo dio eztabaidari, **Euskadiko irakaskuntzaren kalitatea eta ekitatea indartzeko helburuarekin, honako hauetan azpimarra jarritz: arlo publikoaren balioan, komunitatearen parte-hartzean, kudeaketa demokratiko, garden eta ebaluagarrian, diskriminaziorik gabe aniztasunari erantzun egokia ematean.**

Hurrengo orrialdeetan, Elkarrekin Podemos-IUK hezkuntza-itun honetarako egindako proposamena aurkeztuko diegu gainerako alderdi politikoei, sindikatuari, hezkuntza-komunitateari, gizarte-erakundeei, profesionalei eta euskal gizarte osoari.

ESKOLA-SEGREGAZIOAREN AURKAKO ETA HEZKUNTZA-EKITATEAREN ALDEKO ITUNA

Arazo bat konpontzeko lehen urratsa arazoa dagoela aitortzea da, beraz, Hezkuntzako Ponentziaren ondorioetan garbi asko aitortu behar da euskal hezkuntza-sistemak aurrez aurre duen arazo nagusia segregazioa dela. Segregazioak kalte egiten dio aukeraberdintasunari; hezkuntza hobea lortzea, kasu gehienetan, persona batek duen diruaren araberakoa da, gizarte-mugikortasuna eragotziz. Premiazkoa da euskal hezkuntza-sistemaren kohesioa areagotzeko neurriak hartzea.

Faktore ugari eragiten badute segregazioa ere, bereziki erabakiorrak dira hauetako bi: familien egoera sozioekonomikoa eta haien jatorriak. Egungo egoera iraultzeko, neurri zehatzak hartu behar dira.

Elkarrekin Podemos-IUK uste du **hezkuntza tresna egokia dela jatorriaren edo gizarte-klasearen arrazoiengatik sortzen diren desberdintasunak gainditzeko**; izan ere, badakigu hori ezinbesteko baldintza dela euskal gizarte kohesionatu baterako.

Horregatik guztiagatik aldarrikatzen dugu **hezkuntza itunak konpromiso politiko, sozial eta demokratiko bat izan behar duela abiapuntu, Euskadiko eskola-segregazioarekin amaitzea helburu hartzen duena.** Horregatik, honako neurri hauek proposatzen ditugu:

- 1. Irakaskuntzaren doakotasuna bermatzea**, funts publikoekin mantendutako ikastetxe guztietan. Hau da, **gaizki deitutako borondatezko kuotak kobratzea benetan debekatzea** eta hezkuntzako nahitaezko elementuen doakotasuna bermatzea.
- 2. Ikastetxe askok egiten dituzten ikasleak hautatzeko prozesuekin amaitzea**, eta ikastetxea aukeratzeko askatasunaren erabilera desegokiarekin amaitzea, askatasun horrek aniztasun soziala islatzen ez duten zentroak sortzea dakarrenean.
- 3. “Gizarteratzeko Eskola Premiaren Indizea”** edo antzekoa onartzea eta ezartzea, funts publikoekin sostengatutako ikastetxe guztiak euskal ikasleen aniztasuna onartzera behartzeko.
- 4. Matrikulatzeko zonako edo udaleko bulego bakarrak sortzea**, familiei informazioa emateko eta ikasleak hautatzeko prozesu informalak saihesteko. Bulego horiek ikastetxeekiko independenteak dira, ikasleen matrikulazio-prozesu gardena eta orekatua bermatzeko (hasierakoa eta matrikula bizikoa).
- 5. Matrikula biziari dagokionez, beren gaitasunaren muga dauden ikastetxeek ez dute ohiko matrikularako ratio-igoerarik eman behar**, ikasleen banaketa orekatuagoa izan dadin.

6. **Eskolatze ez segregatzailea**, ikastetxeen arteko esleipenei buruz erabakitzeke irizpideetako bat izatea. Hau da, ikasleen arteko heterogeneotasuna bermatzeko neurri zehatzak hartzea, eskolatzea orekatua izan dadin.
7. **Datuak biltzeko sistema bat sortzea eta ikastetxeen osaera sozialari buruzko urteko txosten bat argitaratzea, eskola-segregazioaren euskal behatoki baten bidez**, eskola-segregazioaren ezagutzan sakondu ahal izateko hainbat arlotan, hala nola ikastetxe bakoitzaren hezkuntza-proiektuan, premia bereziak dituzten ikasleetan eta aisialdian.
8. **Diskriminazio positiboa** eskola-esleipenaren sisteman, maila sozioekonomiko baxuko familien alde. Irizpide sozioekonomikoen garrantzia handitzea eta ikasle ohien senideengatiko puntuak kentzea, errenta altuko familiei are abantaila handiagoak ematen dizkietelako.
9. Plazak esleitzeko egungo sistema aldatzea, familien jokabide estrategikorik ahalbidetzen ez duen esleipen-sistema baten bidez. Hau da, **onarpen geroratuko mekanismoa ezartzea**, familien aldetik estrategiak eta manipulazioak saihesteko eta familiek benetako lehentasunak adieraz ditzaten, gizarte-aniztasuna islatzen ez duten zentroetako gizarte-geruzak kontzentratzea saihestuz.
10. Jaiotza-tasa jaisten ari den testuinguru batean, berriz planteatu behar da **eskola-eskaintzaren eta -eskariaren arteko oreka berreskuratzea**; izan ere, gaireskaintza badago, segregaziorako joera handiagoa egongo da. Beraz, **sare publikoak eremu bateko matrikulazioa bere gain har dezakeenean, ez da itundu behar eskaerari erantzuteko beharrezkoak ez diren ikasgelarik edo ikastetxerik**, eta, nolana ere, sistema publikoko eskaintza handitu ahal izango da. Soberan dauden itunpeko gelak egungo eskari polarizatua alde batera utzita doitu behar dira, eta programazioan lehentasuna eman behar zaie gizarte-kohezioari eta ikasleen heterogeneotasunari erantzuten dieten ikastetxeei, **eta bunker segregazionista gisa funtzionatzen dutenak baztertu behar dira**.
11. **Desabantailan dauden zentroetan esku-hartze publiko eta komunitarioko proiektuak bultzatzea**. Langileak hornitzeko berariazko mekanismoak onartzea eta arautzea, ikastetxe horietan lan egiteko irakasle kualifikatuak, motibatuak eta pizgarridunak izan daitezen, bai eta horiek gidatzen dituzten zuzendaritza-taldeak ere. Halaber, akordioak egitea gainerako administrazioekin eta hezkuntza-komunitatearekin, proiektu horietan behar adina baliabide sartzeko (osasuna, soziosanitarioa, hezkuntza ez-formala, elkarte-komunitatea), ikastetxe horietako hezkuntza-kalitatea hobetzeko.

12. 11. puntuari dagokionez, **aniztasun handiena eta/edo hezkuntza-komplexutasun handiena duten ikastetxeen baliabide ekonomikoak handitzeko mekanismo bat adostu eta onartu beharko da.**
13. Hemen planteatzen ditugun neurri horiek ez dira soilik segregazioa jasaten duten zentroetan ezarri behar; banantze txikia edo nulua duten zentroetan aniztasunaren aldeko neurriak hartu behar dira. Hau da, bereizketari aurre egiteko, **ikuspegi konpentsatzailea erabiltzeaz gain, ikuspegi prebentiboa ezarri behar dugu.**

HEZKUNTZA-SISTEMA: EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA SISTEMAREN ARDATZ

14. **Hezkuntza Publikoa, hau da, titulartasun publikoko ikastetxeak izan behar dira Euskal Hezkuntza Sistemaren ardatz egituratzailea, eta 10 urteko epean hegemoniko bihurtzea proposatzen dugu (EBko batez bestekoarekin homologagarria).**
15. **Euskal eskola publiko berritua proposatzen dugu, egungo erronketara egokitua, baliabide ekonomiko gehiagorekin, partaidetua, sarean eta modu kooperatiboan funtzionatuko duena, langile nahikoekin eta curriculum propioa izango duena.**
16. **Hezkuntza publiko horrek 0 eta 18 urte bitartekoentzat eskaintza integrala eta doakoa bermatu behar du udalerrri eta auzo guztietan.**
17. **Beharrezkoa da titulartasuna eta kudeaketa publikoa duten ikastetxeen sarea zabaltzea, hezkuntza-etapa eta -modalitate guztietako eskolatze-premia guztiei erantzuteko. Horretarako, **Administrazioaren titulartasuneko ikastetxe berriak sortzeko plan bat diseinatuko da.****
18. **Sare publikoko ikastetxeen arteko sareko eta lankidetzako lana bultzatu behar da.**

ESKOLA-PLANGINTZA ETA MAPA

19. Egungo Eskola Mapa berriz diseinatzea, hura errealitate berrira egokitu dadin eta hezkuntza-eskaintza planifikatu dezan, irakaskuntza publikoko matrikula-eskaerarik erantzun gabe gera ez dadin, zero mailatik hasi eta batxilergoko eta heziketa-zikloetako ikasketetaraino eskaintza duten eskola-eremuak berrantola ditzan, Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programen/Eskolatze Osagarriko Programen eskaintza zabal dezan eta irakaskuntza publikoa hezkuntza-sistemaren ardatzean jar dezan.
20. Hezkuntza-plangintzaren logikaren ondorioz, **ez da ikasgela berririk itundu behar eskaerari erantzuteko adina plaza publiko dauden eremuetan.**
21. **Sare publikoan IPlak sustatzeko plan bat onartuko da,** kuantifikatu daitezkeen helburuekin eta prozedura argiekin, ikastetxe mota hori garatzeko helburuarekin.
22. Beharrezkoa da **irakasleen eta hezkuntzako beste profesional batzuen plantillak handitzea, talde eta irakasle bakoitzeko ikasle kopurua murrizteko** eta ikasleen beharrei erantzun ahal izateko. Horretarako, beharrezkoa da irakasle/ikasle eta/edo irakasle/talde ratioak optimizatzea, ikaskuntza-prozesuan kalitaterik eta ekitaterik handiena bermatzeko, batez ere irakaskuntza berezietan edo gaitasunetan oinarritutako irakaskuntzetan.
23. **Hezkuntza pribatu-itunpekoa mugatzea, eskaintza publiko nahikoa dagoen bitartean lerro pribatu eta itunpeko berriak ez irekitzetik abiatuta, eta derrigorrezkoak ez diren etapetan ez ituntzetik abiatuta.** Hori bereziki premiazkoa da jaiotza-tasak behera egiten duen unean eta zentro pribatuekin datozen 6 urteetarako itunak berritzen diren unean.
24. **Haur Hezkuntzako etapak bere prestakuntza-ibilbidea izan behar du, Haurreskoletan matrikulatuta dauden 0-3 urteko haur guztiek ikastetxe publikoetan matrikulatzeko aukera izan dezaten.** Haurreskolak partzuergoa bultzatzea eta doako zerbitzu publiko unibertsal bihurtzea, 0-3 ziklo publikoa benetan ziurtatzeko. Era berean, **0-2 zikloko dirulaguntzak baliogabetzea ikastetxe pribatu eta itunpekoetan.**
25. Horri dagokionez, **azken urteetan larriagotu diren privatizazio-joerak irauli behar ditugu.** Horregatik, lehen hezkuntza-zikloan eskaintza publikoa bermatu behar den bezala, beharrezkoa da **Lanbide Heziketako eskaintza publikoa indartzea eta zabaltzea.**
26. **HPB Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleentzako baliabideak indartu behar dira** eskolatze arrunta orokortzea lortzeko. Horretarako dagoen araudia eguneratu egin behar da.

ITUNPEKO SAREAK ETA PUBLIFIKAZIOA

27. Ezinbestekoak diren egungo hezkuntza-itunak 22/23 ikasturterako luzatuko dira, eta, beharrezkoa bada, 23/24 ikasturterako ere, Itun honetako akordioak eta etorkizuneko legearen neurriak **ez hipotekatzeko**. Ez da itun berririk egongo bi ikasturte horietan, ezta aurretik ezarritakoa gainditzen duen plangintzarik ere.
28. Euskal hezkuntza-sistemaren errealitatea dikotomikoa da, baina ezin dugu in aeternum eredu hori betikotzen jarraitu. **Gure apustua sare publiko integral baten garapen progresiboa lortzea da**. Horregatik, **araudi adostu bat garatzea proposatzen dugu, hala nahi duten ikastetxeen publikazioa ahalbidetzeko**.
29. Publikatzeko asmoa adierazten duten zentroen, Sailaren eta sindikatuen artean adostuko dira zentro horietako langileak administrazioaren gain hartzeko behar diren prozedurak eta baldintzak.
30. Mantenduko diren **itunpeko sareetako ikastetxeek printzipio hauek bete beharko dituzte: diskriminaziorik eza, gardentasuna, irabazi-asmorik eza, ikasleen aniztasunarekiko eta ikasleen jatorriaren konplexutasun sozialarekiko arreta eta hezkuntza formalean zerikusia duten sektoreen parte-hartze demokratikoa**.
31. Beharrezko araudia garatzea, itunpeko ikastetxeak ezarritako auditorietara eta kontabilitateko gardentasun-arauetara lotu daitezen, diru publikoaren erabileran **izaera finalista ziurtatzeko** eta hezkuntza-sistemako ikastetxe guztien artean beste finantzaketa-iturri batzuen afluxuari dagokionez auditagarriak diren irizpideak bateratzeko.
32. Gainera, **Hezkuntzako finantza-gardentasuna bermatu behar da**, eta ziurtatu behar da Hezkuntza Sailak onartuko dituela prozedurak zeintzuen bitartez ikastetxe pribatu-itunpekoek jarduera osagarriengatik dirua kobratzen duten. Gainera, programetarako bekak bermatuko dira, sistema publikoan eskaintzen direnen parekoak.
33. **Sexua dela-eta bereizten duten ikastetxeek ezin izango dute hezkuntza-itunik sinatu, ezta bestelako laguntza publikorik jaso ere**.
34. Hezkuntza-eskaria betetzeko beharrezkoak izaten jarraitzen duten hezkuntza-itunak urtero egingo dira, eta aurreko baldintzak betetzen diren ebaluatuko da, finantzaketa publikoa jaso ahal izateko baldintza *sine qua non* gisa.

BALIABIDE EKONOMIKOAK

35. Beharrezkoa da Hezkuntza Publikoaren diru-kopurua legez blindatzea, azken 10 urteetan Hezkuntzan izandako murrizketak iraultzea eta aurrekontu-partida pixkanaka handitzea, harik eta aurrekontu-partida **BPGren % 7ra** iritsi arte, eta gehikuntza hori sare publikoko baliabideak hobetzera bideratzea, batez ere gizarte-egoera ahuleko ikastetxeetara eta 0-2 urte bitarteko eskaintza publikoa hobetzera.

36. 2030. urterako aipatutako %7ra iristea proposatzen dugu.

AUTONOMIA, PARTE-HARTZEA ETA DESZENTRALIZAZIOA

Eskola demokratikoa eta parte-hartze demokratikoa herri honetako ezkerren betiko aldarrikapena da. Beraz, bai, autonomia duen eskola publiko baten alde egiten dugu eta bera osatzen duen komunitatea indartzeko duen parte hartzeko eredu hurbil eta demokratikoen alde egiten dugu.

37. Administrazioaren eta ikastetxeen arteko harreman berri bat birpentsatu eta adostu behar da deszentralizatzeko helburuarekin baina sistema desarautu gabe.

Aldi berean, Udalen zeregina eta familien, ikasleen eta, azken batean, hezkuntza-komunitatearen parte-hartze demokratikoa bultzatu behar da.

38. Ikastetxeei baliabide ekonomiko eta giza baliabide gehiago emango zaizkie, ikastetxearen hezkuntza-proiektuak bete ahal izateko.

39. Ikastetxeen autonomiak ikastetxeek kontuak ematea bultzatuko du, aldez aurretik ezarritako helburu pedagogikoetan, gizarte-aniztasunarekiko konpromisoetan eta kudeaketan bertan oinarrituta.

40. Eskola Kontseiluei buruzko 13/1988 Legearen erreforma eskatzen dugu berriro, Euskadiko Eskola Kontseiluaren funtzioak eta osaera berrantolatzea, Udal Eskola Kontseiluak berraktibatzea eta ikastetxeetan parte hartzeko formula komunitario berriak bultzatzea ahalbidetuko duena.

41. Aurreko puntuaren ildotik, Udal Eskola Kontseiluak indartzeko unea da, hezkuntza-arloan, plangintzan eta eskola-segregazioaren aurkako borrokan duten lanerako, proposamenerako eta erabakirako gaitasuna indartzeko, etorkizuneko Legean ezarritako gutxienekoetan oinarrituta.

42. Beharrezkoa da lidergo pedagogikoa duten ikastetxe publikoetako **zuzendaritza-taldeen zeregina bultzatzea**, eta, horretarako, haien baldintzak hobetu behar dira, ikastetxeei baliabide gehiago eman behar zaizkie, ahalik eta ahalegin handiena egin ahal izateko burokrazia administratiboarekin zerikusirik ez duten zereginetan.
43. **Berritzeguneei koordinatzaile gisa duten zeregina** eta ikastetxe publikoei laguntza ematea indartzea, araudia berrituz, haien eginkizunak eta zereginak eguneratzeko eta plantillak eta plazak betetzen dituzten langileen profilak eguneratzeko.
44. **Azpiegituren plan bat onartzea**, ikastetxe publiko guztiei beti instalazio egokienak emateko, aniztasun edo hezkuntza-komplexutasun handiena duten ikastetxeei lehentasuna emango dien herrialde-diseinu batetik abiatuta.

IKUSPEGI KOMUNITARIOA ETA HAURTZAROKOA

Eskola publikoa eta bere gain hartzen dituen elkarteak (guraso elkarteak, ZUZENDARITZAK, zonako zuzendaritzak, etab.) gizarte-eragileekin elkarlanean aritzen dira (auzo-, kultura-, kirol-, ingurumen-, feminismo- eta etnia-elkarteak), eskolaz kanpoko hezkuntza-jarduerak eta jarduera ez-formalak elkarrekin garatzeko, bai eta komunitatean parte hartzeko ere, baina ez da hori ahalbidetuko duen kanalik edo programa formalik ezartzen; aitzitik, horietako bakoitzak duen indarraren edo interesen mende geratzen da. Hauek proposatzen ditugu:

45. **Hiri eta herri hezitzaileak bultzatzea**, non hezkuntza-proiektua tresna izango baita udalerraren hezkuntza-helburuak zehazteko, bertan administrazioak hezkuntza- eta toki-eragileen arteko lan-sareak eta elkarrekiko laguntza bultzatu eta koordinatu ditzan, bai eta filosofia hori partekatzen duten beste herri edo hiri batzuekin sarean lan egitea ere.
46. **Haurren eta nerabeen interesak eta beharrak kontuan hartuko dituzten eta haien parte-hartzea sustatuko duten herriak eta hiriak diseinatzea**. Ildo horretan, haurtzaroan bizi-kalitateko eskubidea bermatu behar da, haien oinarritzko beharrak bermatuz eta adingabeak babesteko sistemak indartuz, osasun-, hezkuntza- eta gizarte-sistemen arteko koordinazioaren bidez. Era berean, **tokiko erabakiak hartzean beraien parte hartzea sustatuko da**, haurren kontseiluak bezalako guneak eratuz.

IRAKASLEAK, LAN-ITUNPEKO IRAKASLEAK ETA ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEAK

Oso garrantzitsua da hezkuntza-komunitateko lanbide-eremu guztietatik planteatutako premiak aintzat hartzea, gure hezkuntza-sistema publikoak etorkizun hurbilean eskaini behar duen gutxieneko kalitatea bermatzeko. Ezinbesteko lan-hobekuntzen esparruan, irakaskuntzako kolektibo profesionalek planteatutako oinarritzko premien artean honako hauek aipatuko ditugu:

47. Behin-behinekotasuna murriztea: **laneko egonkortasuna finkatzea**, egungo behin-behinekotasunaren kaltetan.
48. Funtsezko zerbitzu guztiak eta hezkuntza-zerbitzu osagarriak (jantokiak eta garbiketa barne) **azpikontratatzearekin eta kanporatzearekin amaitzea**, publiko bihurtzeko eta zuzeneko kudeaketa prozesu erreal baten bidez.
49. Baliagarriak diren araudiak eta prozedurak, **ikastetxe publikoek berek zehatz ditzaten** bete beharreko plazen ezaugarriak.
50. **Curriculum Dekretuak birformulatzea**, batez ere Oinarritzko Hezkuntzarena, hezkuntza-gaitasunetara eta horien ebaluaziora egokituta.

EUSKARA ETA HIZKUNTZA EREDUA

Ikastetxeak funtsezko esparruak dira euskalduntzea gauzatzeko. Tresna gehiago ezarri behar dira ikastetxeetan, hain zuzen ere beren errealitate soziolinguistikoa dela eta, euskalduntzea bermatzeko baliabide gehiago behar dituzten ikastetxeetan. Euskararen erabilera gizarte-kohesiorako tresna gisa ulertzen dugu. Euskara ez da segregatzailea, baizik eta kohesio sozialerako bitarteko aparta. Adibide gisa, pertsona migratzaileen seme-alaba gehienak ditugu D ereduan ikasten.

A, B eta D ereduen sistema gainditu behar dugu, euskalduntze eraginkorragoa eta emaitza akademiko hobeak lortzeko. Bi elementuak bateragarri egingo dituen eta gizarte-kohesioaren alde egingo duen eredu bat behar dugu.

51. **Euskara ardatz egituratzaile duen hizkuntza-eredu eleaniztunari** bide eman behar diogu. Horrela, ikasleek diglosiari aurre egingo diote eta komunikazio-gaitasun baliokideak garatuko dituzte bi hizkuntza ofizialetan. Euskarari eta gaztelaniari dagokienez, bigarren hezkuntza amaitzean ikasleek B2 maila lortzea bermatu beharko litzateke, eta ingelesari edo hirugarren hizkuntza bati dagokionez, B1 maila; hala ere, kontuan hartu behar da hezkuntza-eremutik harago doazen aurrerapen soziolinguistikoak behar direla. Aipatzen ditugun hizkuntza-gaitasunek **eskola bakoitzaren beharretara egokitutako esku-hartzeak eskatzen dituzte.**

52. Zentzu horretan, **tokiko egoera soziolinguistikoaren arabera hizkuntza-proiektuak** sortzearen aldeko apustua egiten dugu. Ikastetxe bakoitzak bere egoera soziolinguistikoa hartu behar du kontuan, horren arabera hizkuntza-ereduak sortzeko eta egokitzeko. Hala ere, ikastetxeei hizkuntza-proiektua garatzeko autonomia ematen bazaie ere, Hezkuntza Sailak ezin du bere erantzukizuna alde batera utzi, udalerrri guztietan nahitaez bete beharreko esparru komun bat ezarri behar du. Ezin ditugu nahastu zentro bakoitzaren autonomia eta deszentralizazioa deserregularizazioarekin eta atomizazioarekin.
53. Bestalde, eredu eleaniztunez ari garenean, bi hizkuntza ofizialak eta hirugarren hizkuntza bat komunikazio-hizkuntza gisa erabiltzeaz gain, **jatorrizko ikasleen etxeko kulturaren eta hizkuntzaren presentzia (L1) behar direla aipatzen dugu.**
54. Borondate politikoa behar dugu euskalduntzea bermatzeko. Euskara jakitea haur eta gazte guztien eskubidea da, eta administrazioak eskubide hori gauzatzeko bitartekoak indartu behar ditu. Horretarako, baliabide eta informazio gehiago behar dira, eta, horri dagokionez, uste dugu **ikerketa handiagoa behar dela gure errealitate soziolinguistikoaren diagnostiko egokia egiteko**; ikerketa hori ISEI-IVEIk egin lezake.

EUSKAL CURRICULUM LAIKOA, HEZKIDETZAILEA ETA INKLUSIBOA

55. Hezkuntza-kalitatean eragina duten egiturazko arazoei aurre egin behar izateaz gain, hala nola bereizketari edo gizarte-kohesiorik ezari, hezkuntza-kalitateari heldu behar diogu, desorekatua dagoena orekatzeko eta ikastetxe bakoitzari baliabide ekonomiko, material eta antolamenduzko egokiak emateko, ikasleen garapenaren eta autonomia integralaren mesedetan. Horregatik, hezkuntza-kalitatea hobetzeko plangintza estrategiko bat sortzeko eta garatzeko beharra defendatzen dugu.
56. Eskolak erakunde publiko den aldetik, berez duen ezinbesteko **izaera laikoa bermatu behar dugu**, eta, hori dela eta, erlijio-sinbolorik gabeko espazioa izan behar du, eta eduki konfesionalik gabeko hezkuntza-curriculum izan behar du.
57. Gizarte-egitura matxistak errepikatzea eta iraunaraztea saihestuz, genero-rol estereotipatuak eta sexu-genero eraikuntzak zalantzan jarriko dituen **hezkidetzaren alde egiten dugu**. Horretarako, **sistema osoan egiturazko hezkidetzaren programa bat sortzea** proposatzen dugu, non hezkidetzak curriculumaren edukiak, balio-sistema eta ezkutuko curriculum zeharkatuko dituen, gizarte bidezko, solidario, inklusibo eta erantzunkide baten garapenean aurrera egiteko oinarri gisa.
58. Gainera, hezkuntza afektibo-sexualaren instituzionalizazio irmoa behar dugu. Beraz,

hezkuntza afektibo-sexuala modu integralean, progresiboan, zeharkakoan, egiturazkoan eta derrigorrezkoan ezartzea defendatzen dugu hezkidetzaren barruan. Hala ere, esparru ez-formaletik hezkidetzako lana ez da gutxietsi behar, eta zubiak sortu behar dira bi sareen artean, formala eta ez-formala.

59. Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko oinarria hezkidetzaren da, zeinak hainbat zutabe ditu, hezkidetzaren hori sostengatzen dutenak eta ikastetxe bateko ekintza guztiak zeharkatzen dituztenak. Proposatzen dugu behar adina baliabide ematea **II. Hezkidetzaren Plangintzaren** ekintzak borondatezkoak izatetik nahitaezkoak izatera igaro daitezkeen eta EAEko Berdintasun Legearen edukiarekin bat etor daitezkeen.

60. Memoria Demokratikoa, Bakea eta Giza Eskubideak. Gure ustez, funtsezkoa da gure herrialdearen **Memoria Demokratikoa hezkuntza curriculumean sartzea.** Ez da nahikoa Historia irakasgaia edukitzea, baizik eta lehen hezkuntzako, derrigorrezko bigarren hezkuntzako, batxilergoko eta helduen etengabeko hezkuntzako curriculumean txertatu beharko litzateke. Edukiak ikerketa historiografikoaren eta material pedagogikoen berezko praktika zientifikoetan oinarritu beharko dira. Funtsezkoa da memoria, indarkeriarik eza eta bakearen kultura, demokrazia eta Giza Eskubideak curriculumean garatzea ikuspegi kritiko eta eraldatzaile batetik.

61. Hezkuntza-etapa desberdinetako curriculumetan **filosofiaren espazioak indartzea,** gogoeta kritikoa eta pentsamendu konplexuaren sendotzea sustatzeko. Euskadin gaitasunen arabera diseinatzen den curriculumaren %50ean, **Filosofia, Etika edo Psikologia** irakasgaiei leku gehiago ematea proposatzen dugu.

62. Artea, hezkuntza- eta gizarte-inklusioren eta komunitate-loturak sortzeko tresna gisa. Sare publiko osoan programa artistikoak kontuan hartzea proposatzen dugu, erakunde publiko eta komunitarioekin lankidetzan (museoak, dantza-, musika- edo sorkuntza-zentroak, elkarte edo kolektibo artistikoak), ikasleek zein irakasleek aukera izan dezaten hezkuntza- eta gizarte-eraldaketako tresna artistikoak, inklusiboak eta demokratizatzaileak aztertzeko, unean uneko proiektu zehatzetatik harago.

2030 AGENDA ETA IKUSPEGI EKOSOZIALA

Ingurune sozial eta naturalarekiko enpatia, zaintzak, justizia soziala, kontsumo arduratsu eta kritikoa edo aztarna ekologikoa nola murriztu zeharkako gaiak dira hezkuntza-maila guztietan lantzeko, irakasleen prestakuntzatik curriculum-edukira edo azpiegiturei buruzko esku-hartzeetara, baita ikasleen ohituretan ere.

63. Uste dugu ezinbestekoa dela **ikuspegi ekosoziala** gehitzea itunari, Legeari eta euskal hezkuntza-sistemearekin zerikusia duten arau eta jarduera guztiei, Jasangarritasunerako Hezkuntzaren 2030erako Estrategiaren lehen xedearekin bat etorritik, horixe baita ekintzarako hezkuntza. Horretarako, ekintzetan lehenetsiko da, hala nola:

- Ekonomia soziala eta solidarioaren aldeko enpresei erostea.
- Gardentasuna eta kode etikoa eskatzea ikastetxeei zerbitzuak ematen dizkieten kanpoko enpresei (eskolaz kanpokoak, bestelakoak...).
- Eraldaketa arkitektonikoei eta hobekuntza energetikoari ekitea: espazioen eta instalazioen berrantolaketan eraginkortasuna bilatzea.
- Ikastetxeetan energia berriztagarriak sustatzea autohornikuntzarako, energia-kooperatibekin batera.
- Mugikortasun iraunkorreko planak eta programak martxan jartzea eskola publikoetara iristeko.
- Birziklatzearekin, berrerabiltzearekin, berreskuratzearekin eta, batez ere, hondakinak gutxitzearekin lotutako programak ezartzea.
- Eskolako jantokiak eredu jasangarriagoetara eralda daitezen bultzatzea: hurbileko produktuak, sasoikoak edo ekologikoak erabiliz.

64. Curriculumean, zeharka, **garapen iraunkorrerako hezkuntza** eta horrekin konprometitutako praktiken sustapena txertatuko dira.

65. Auzoan edo udalerrian, **hurbileko hezkuntza** funtsezko konpromisoa da komunitatearekin berarekin eta ingurunearekin berarekin, ibilgailuetan eta/edo garraio kolektiboan joan-etorriak egitea saihesteko. **Beraz, posible den guztietan eta segregazioa ahalbidetzen ez denean, hezkuntza-eredu hori sustatuko da.**

66. Hezkuntza-instalazioak eraikitze eta egokitzeko egiturazko plangintza, **haurren eta desgaitasunen bat duten pertsonen premiak eta genero-desberdintasunak kontuan hartuko dituena**, ikasketa-ingurune seguruak, indarkeriarik gabeak, inklusiboak eta guztientzako eraginkorrak eskainiko dituena, 4. GJHK berak adierazten duen bezala.

ESKOLA-JANTOKIAK

Azken urte hauen esperientziaren ondoren eta eskola-komunitateetan, lehen sektorean eta gizartean dagoen eskaera dela eta, eskola-jantokien egungo kudeaketa eredu aldatzeko beharrezkoa ikusten dugu **eskola-jantoki eredu** berri bat abian jartzea, eredu hori **hezitzaileagoa, osasuntsuagoa, jasangarriagoa izango da eta komunitatean txertatuagoa egongo da, eta partaidetza handiagokoa eta bidezkoagoa izango da**. Jantokian elikadura ikastetxeko hezkuntza-proiektuaren beste zati bat izango da; horrela, bertan gertatzen dena irakaskuntza/ikaskuntzarako beste atal bat izango da, ikastetxeko curriculumarekin lotuta egongo da eta beharrezko espazioa eta baliabideak emango zaizkio. Horretarako, honako hauek proposatzen ditugu:

67. Itunean eta etorkizuneko Hezkuntza Legean oinarritzko zerbitzutat hartzea, ez osagarritzat. Horrek eremu pedagogikoa indartzea ekarriko luke eta eskola-jantokia ikastetxeko proiektuan txertatuko litzateke, ratioak hobetuko lirateke, langileen prestakuntza eta abar barne hartuta.

68. Agiri eraldatzaileak idaztea, catering-enpresa handien interesei erantzun beharrean, hezkuntza-komunitatearen premiei erantzungo dietenak, komunitatearekin berarekin adostuta.

69. Sukaldeak mantentzea eta eraikitzea. Eskola-komunitateen sukalde berrien eskaerei erantzutea edo eskura dauden azpiegiturak partekatuak izan daitezen sustatzea. Horretarako, indarrean dagoen Azpiegituren Plangintza eguneratu behar da, behar beste baliabidez hornituz eta 2023an, plangintza amaitu ondoren, plangintza osorik bete dela egiaztatuz.

70. Langileak. 2000. urteko araudia eguneratzea, langileen ratioak eta profilak eguneratzea eta haien prestakuntzarako era guztietako baliabideak ziurtatzea, lan mota hori publiko bihurtzeko bidean dagoen bitartean, langile horiek hezkuntza-eragile gisa duten eginkizuna sendotu dadin.

71. Kudeaketa-eredu osagarria. Beharrei erantzungo dien eta tokiko garapenarekin erlazionatuko den bestelako eredu bat eskatzen duten eskola-komunitateei arreta emanez, tokiko eragileen parte-hartzea ahalbidetuz bere garapenean eta ezarpenean.

72. Elikadura osasungarria eta jasangarria, gizarteak eta planetak eskatzen duten bezalakoa. Ikastetxeek elikadura-eredu hori garatzeko espazio bat izan behar dute, baina baita eredu horiek beren mugetatik haratago sustatuko dituen espazio bat ere. Horretarako, Hezkuntza, Osasun eta Garapen Ekonomikoa, Jasangarritasuna eta Ingurumena sailen arteko lantalde bat eratuko da.

EBALUAZIOA ETA IKUSKAPENA

73. Ebaluazio-kultura berritzailea, berezkoa, doitua eta zorrotzagoa behar dugu, non ikastetxe guztiek eta dagokion administrazioak modu arduratsuan beren gain hartuko dituzten ebaluazioaren emaitzak, horrela euskal hezkuntza-ereduaren etengabeko hobekuntzan lagundu ahal izateko. Beraz, ikuskapen arina eta ez hain burokratizatu ez dagoena defendatzen dugu; ikuskapen horren zeregin nagusia ikastetxeen ebaluazio globala egitea izango da.

74. Ebaluazio hori ez da emaitza akademikoen eremura mugatu behar; izan ere, hezkuntza- eta hizkuntza-proiektuek, pedagogia-antolakundeek, irakasleen jarduerak eta azpiegiturek, besteak beste, gainbegiratze eta ebaluazio fidagarriak behar dituzte.

75. Fidagarritasun hori lortzeko, **kalitate-adierazle komunak** behar ditugu, horrela bakarrik saihestuko baitira ebaluazio-emaitzen irakurketa lausoak edo bikoitzak. Bermatu behar dugu ebaluatutako eragileek ere parte hartuko dutela lantze-prozesuan, eta **ebaluazio-lanak erakunde publiko eta fidagarriek** egingo dituztela, hala nola **ISEI-IVEIk**.

DIGITALIZAZIOA

Hezkuntza-eremuaren digitalizazioa, oro har, ez da behar bezala planifikatu. Planifikatu beharrean, modu merkantilizatuan txertatu da, eta ikasleen datuen %51 haiekin merkaturatzen duten erraldoi teknologikoen esku daude. Une egokia da egoera atzeraezina izan ez dadin eta digitalizaziorako arrazoizko oinarri etikoak ezar ditzagun.

76. Horregatik, **Digitalizazio Plangintza** bat sortzearen eta garatzearen aldeko apustua egiten dugu, azpiegitura eta bitartekoak ezartzeaz gain, jarraitu beharreko irizpide metodologiko eta pedagogikoak ezarriko dituen.
77. **Software librea ezartzearen eta Sailaren menpeko plataforma publiko bat sortzearen alde** egiten dugu. Gaur egun, eremu digitala enpresa pribatuen mende dago, eta enpresa horien produktuak ezin dira egiaztatu. Software libreak bakarrik bermatzen digu printzipio etikoetan oinarritutako erabilera arduratsu eta demokratikoa.
78. Gero eta larriagoa den **eten digitala saihesteko neurri zehatzak** behar ditugu, Digitalizazio Plangintzan ezarriko diren teknologien **doakotasuna eta irisgarritasuna** ikasle guztiei bermatzeko.
79. Baliabide materialez gain, baliabide pertsonaletan ere jardun behar dugu. **Ikastetxe bakoitzean digitalizazio-arduradunak** behar ditugu, teknologia nola erabiliko den, zein etapatan eta zein helbururekin erabakiko dutenak. Ildo beretik, **pedagogoen, neurologoen eta psikologo**en ahotsak entzun behar ditugu, ikasleek mundu digitalarekin, beren ongizatearekin eta osasunarekin izan ditzaketan harreman toxikoei amaiera emateko.
80. Jasangarritasuna ere ezinbestekoa da. Zabor teknologiko gehiegi sortzen dugu, eta *chromebooken* aldeko apustuak arazoa larriagotu besterik ez du egiten, 4-5 urte inguru irauten baitute. Horregatik, **offline softwareen** aldeko apustua egiten dugu, denboran irauteko programatuta daudelako, eta ahalik eta jasangarrien diren gailuen alde.

AZKEN GOGOETAK

Dokumentu hau da **Elkarrekin Podemos-IUren oinarria Hezkuntza Itunaren inguruko eztabaida honetarako**. Datozen asteetan, eztabaidak eta kontrasteak egingo ditugu militantziekin, hezkuntza-komunitatearekin, gizarte-erakundeekin eta sindikatuekin, oinarria elikatzen jarraitzeko.

Hasieratik adierazi dugun bezala, akordio hau ezin da izan alderdi politikoen arteko akordio huts bat, eta **Eusko Legebiltzarreko Ponentziari eta Hezkuntza Sailari proposatzen diegu interlokuzio- eta akordio-prozesu bat irekitzea inplikaturako hezkuntza-eragileekin, ikasturte honetan, ahalik eta akordio zabalena eta arrakastatsuen bermatzeko euskal hezkuntza-sistemaren etorkizunari begira.**